



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 15a

47. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Gizarte ereduari buruzko gutun baterako. Mitxel Lacunza Vicario jauna buru duen batzorde sustatzaile batek aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak darabilen politikari buruzkoa, babes ofizialeko etxebizitzetarako buruzko araudietan ezarritako baldintzak, adjudikazio-hartzaileek nahitaez bete beharrekoak, betetzearen gaineko jarraipen eta ikuskapena dela-eta, Aralar parlamentu-taldeak egina (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ahalik eta azkarren ordezkari dezan Fermin Villanueva jauna hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazio-taldean. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Altsasu eta Urdiainen Zangitu industrialdea abian jartzeko atzerapenari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko ea noren ardura den hezkuntzako mahai sektorialean inolako akordiorik lortu ez izana, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko eledun Catalán jaunak UGTko idazkari nagusi Cabrero jaunari buruz egindako adierazpeni buruzkoa, foru parlamentari Félix M.<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina (10. or.).
- Galdera, NA-411 errepidea –A15-Ostiz izenekoa– hobetzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (11. or.).

- Galdera, Osasun Departamentuak San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoarentzat etorkizunari begira dituen planei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (11. or.).
- Galdera, hezur-dentsitometriari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko Frantzia eta Iruña arteko bidearen diseinuan txirindulariak aintzat hartu ote diren, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (13. or.).
- Galdera, “Esne beltzaren” inportazioari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko Kultura Departamentuak Tuteran agertu diren aztarna arkeologikoak kontserbatzeko asmorik ote duen, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (15. or.).
- Galdera, “Erresuma baten aroa” erakusketan ikusgai egon diren zenbait pieza Lizarran jarriko bide den erakusketa iraunkor batera eramateari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (15. or.).
- Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan Kawaguchiko abesbatzak eman beharreko kontzertua egiteko tokia aldatzeko arrazoari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren enkaruz Víctor Manuel Arbeloaren liburu bat argitaratzeari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (17. or.).
- Galdera, Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruzkoa, foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko oinarrizko osasun laguntzako farmazialarien lanpostuei buruz 2001ean onetsi zen mozioan premiatutakoa bete ote den, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait obra publikotan jarritako eskulturei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (18. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

### **Foru Lege proposamena, Gizarte ereduari buruzko gutun baterako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen legegintzarako ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Gizarte ereduari buruzko gutun baterako Foru Lege proposamena aurkeztu zen Nafarroako Parlamentuan; hain zuzen ere, Mitxel Lacunza Vicario jauna buru duen batzorde sustatzaile batek aurkeztu zuen.

Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek onartzeari buruz egindako txostena ikusita, aipatu foru legearen 5 eta 7. artikuluekin bat eta Erregelamenduko

146.1 artikulua xedatutakoaren babesean, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

ERABAKIA:

**1.** Gizarte ereduari buruzko gutun baterako Foru Lege proposamena, Mitxel Lacunza Vicario jauna buru duen batzorde sustatzaile batek aurkeztua, tramitera onartzea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Erabaki hau batzorde sustatzailearen presidente Mitxel Lacunza Vicario jaunari jakinaraztea, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

### **Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Foru Lege proposamena,  
Nafarroako Gobernuko kideen eta  
Nafarroako Foru Komunitatearen  
administrazioko goi karguen baterae-  
zintasunei buruzko azaroaren 4ko  
19/1996 Foru Legea aldatzekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

2004ko azaroaren 23an, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak aho batez onetsi zuen bateraezintasunei buruzko legedia aztertzeko ponentziak prestaturiko txostena. Txosten hori 2005eko martxoaren 8ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Txosten horretan jasotako ondorioetan esaten da Nafarroako Foru Komunitatean bateraezintasunei buruz indarrean dagoen araudia (azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamenduak) oro har egokia dela lortu nahi dituen helburuetarako, baina arau horren egungo testuan zenbait gabezia edo disfuntzio agertzen dituela, aldaketa partzial baten bidez zuzendu beharko lirakeenak.

Estatuko araudian eta gai hau arautzen duten autonomia erkidegoetako legeetako batzuetan ez bezala, foru legedian ez dira bi erregistro edo atal bereizten –izaera publikoko jardueren erregistroa eta ondare-ondasunen eta -eskubideen erregistroa, izaera erreserbatua duena eta soilik erakunde eta agintari batzuek kontsulta dezaketena–, erregistro bakarra baizik, “Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta administrazioko goi karguen jarduera eta interesen Erregistroa,” zeinak “izaera publikoa” duela esaten baita, nahiz eta errealitatean sarbide murriztua duen, soilik Nafarroako Parlamentuak, Comptos Ganberak, organo judizialek eta ministerio fiskalak erabil baitezakete. Txostenak dio erregulazio hori nahasia eta kontraesankorra dela. Goi karguen jardueren eta interesen Erregistroaren barnean bi atal bereiztea proposatzen zen: bata, jarduerena, zeina publikoa izanen baita, eta bestea, eskubide eta ondasunena, zeinak izaera erreserbatua eta sarbide murriztua izanen baititu.

Orain egin nahi den beste aldaketa bat, txosten hartan ere proposatzen zena da kargu-uzteen ondoren ordainketak jasotzeko eskubidea ematen duten karguak zein diren eta ordainketa horiek zenbatekoak izanen diren zehaztea. Nafarroan,

estatuko administrazioan ez bezala, arautze hori ez da lege bidez gauzatu, erregelamendu bidez baizik; ez du ematen oso koherentea denik hori, Gobernuko kideen ordainsariak foru lege bidez ezartzen baitira, hain zuzen ere Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeaz. Estatuko administrazioarako ezarrita dagoenaren antzeko arau bat egin nahi da.

Aipatu txostenean proposatzen zen, eta testu honetan bide horri ekin diogu, bateraezintasunei buruzko legediaren aplikazio-esparrua hedatzea Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera definituriko sektore publikoa osatzen duten entitate guztietako kargu exekutiboak; egungo arauetan, ordea, goi kargu gisa hartzen dira izendapen libreko lanpostuetako titularrak, Nafarroako Foru administrazioaren menpeko erakunde autonomo-etaoak, bai eta zuzendari nagusiak eta foru erki-degoko sozietate publikoetako zuzendari kudeatzaileak ere. Bateraezintasunei buruzko araudiaren aplikazioan ahalik eta gardentasun handiena lortzearren, komeni da araudi horren esparrua handitzea, administrazio-zuzenbidetik eta bateraezintasunei buruzko legedian jasotako bermeetatik ihes egin ahal izateari eremurik ez uzteko.

**Lehen artikulua.**

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 2., 7. eta 9. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzen dira. Hona testu berriak:

“2. artikulua. Goi karguaren definizioa.

Foru lege honetarako, goi karguak dira:

a) Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta Nafarroako Gobernuko kideak.

b) Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta kontseilarien kabineteetako kideak, administrariak izan ezik.

c) Foru Komunitatearen administrazioko zuzendari nagusiak eta maila organiko bereko lanpostuetako titularrak.

d) Izendapen libreko lanpostuetako titularrak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpeko erakunde autonomoetan.

e) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin lotuta dauden edo administrazio horren nahiz erakunde horien menpe diharduten eta nortasun juridikoa, publikoa nahiz pribatua, duten enpresa-entitate publiko, merkataritza- eta lan-sozietate,

fundazio eta enteetako edo horietako edozeinen elkarteetako zuzendari nagusiak eta zuzendari kudeatzaileak, baldintza hauek guztiak betetzen badira:

– Beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea, industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak.

– Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzea edo haien jardueren gain eragin nagusia izatea, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez.

f) Behin-behineko beste edozein langile, foru araudiaren arabera.

7. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta administrazioko goi karguen jardura eta interesen Erregistroa.

1. Foru lege honetan xedatutakoa bete dadin sortu da Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta administrazioko goi karguen jardura eta interesen Erregistroa.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta administrazioko goi karguen jardura eta interesen Erregistroa bi atal izanen ditu:

a) Jardueren Erregistroa, izaera publikoa izanen duena; bertan inskribatuko dira foru lege honetako 11. artikuluan aipatzen diren deklarazioak eta egintzak.

b) Ondare-ondasun eta -eskubideen Erregistroa, izaera erreserbatua izanen duena; bertan inskribatuko dira foru lege honetako 12. eta 13. artikuluetan aipatzen diren deklarazioak eta egintzak.

9. artikulua. Foru Komunitatearen Gobernuko eta administrazioko goi karguen jardura eta interesen Erregistroko datuetan sartzea.

1. Jardueren Erregistrorako sarbidea publikoa izanen da, eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluan ezarritako araubidea izanen du.

2. Honakoek izanen dute Ondare-ondasun eta eskubideen Erregistrorako sarbidea:

a) Nafarroako Parlamentuak, haren erregelamenduak ezartzen duenari jarraituz, eta Comptos Ganberak, hura arautzen duen foru legeak ezartzen duenari jarraituz.

b) Organo judizialek, erregistroan diren datuak ezagutzea beharrezkoa denean prozesuak instruitu edo ebazteko, auzibideen gaineko legeetan xedatutakoari jarraituz.

c) Ministerio fiskalak, ikerketa lanean dabilenean bere eginkizunak betetzen, Erregistroko datuak ezagutzera behartuta dagoenean.

Datuen eskaera idatziz egingen zaio Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari, argi azalduz zein den goi kargua, zein datu eskatzen diren eta eskaeraren arrazoia. Berehala igorriko dira datuak, haien segurtasuna bermatuz.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru Komunitateko administrazioaren menpeko entitateen betebeharrak.

Sozietate publikoek Erregistroa kudeatzen duen organoari jakinaraziko diote zein lagun hautatu eta izendatzen dituzten haien zuzendaritza organoetarako, foru lege honetako 2. artikulua ukitzen baditu, baita foru lege honetako 5.1 artikuluan adierazitako kontzeptuengatik esleitutako sari ekonomikoak ere.”

### **Bigarren artikulua.**

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari 3. bis artikulua gehitzen zaio. Hona testua:

“3. bis artikulua. Kargua utzi ondorengo hartze-koak.

1. Nafarroako Gobernuko kideek eskubidea dute, kargua utzi eta hurrengo hilabetetik aurrera, eta karguan aritu diren denboraren iraupen bereko epe batean zehar, betiere hogeita lau hilabetez gehienez ere, honako hau jasotzeko: kalte-ordain moduko prestazio ekonomiko bat, aipaturiko epean indarrean zeuden Nafarroako aurrekontu orokorretan kasuko karguari esleituriko ordainsari guztien ehuneko laurogeiaren hamabiren bat bezainbestekoa.”

2. Aurreko idatz-zatian araututako prestazio ekonomikoa jasotzen dutenek, hura jasotzen duten bitartean, ezin izanen dute esku hartu bete zuten karguaren eskumenekin zuzenean loturiko jardura pribatuetan.

3. Artikulu honetan araturiko prestazio ekonomikoari uko egin ahal izanen zaio.”

**Xedapen indargabetzailea.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena.** Indar hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak darabilen politikari buruzkoa, babes ofizialeko etxebizitzetzi buruzko araudietan ezarritako baldintzak, adjudikazio-hartzaileek nahitaez bete beharrekoak, betetzearen gaineko jarraipen eta ikuska-pena dela-eta.**

*ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak darabilen politikari buruzkoa, babes ofizialeko etxebizitzetzi buruzko araudietan ezarritako baldintzak, adjudikazio-hartzaileek nahitaez bete beharrekoak, betetzearen gaineko jarraipen eta ikuska-pena dela-eta".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**JABELDURAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuo Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz tramitatzeo onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahairi. Babes ofizialeko etxebizitzetzi buruzko araudietan ezarritako baldintzak, adjudikazio-hartzaileek nahitaez bete beharrekoak, betetzearen gaineko jarraipen eta ikuska-pena dela-eta departamentuak darabilen politikari buruzkoa da jabeldura.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta azkarren ordezkari dezan Fermin Villanueva jauna hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazio-taldean.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta azkarren ordezkari dezan Fermin Villanueva jauna hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazio-taldean".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Mahaian, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

2006ko apirilaren 28an, Hezkuntza Departamentuaren menpeko irakasleen batzordeko sindi-

katuek –AFAPNA, CCOO, CSI-CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT– erabaki zuten negoziazio mahaiak uztea administrazioak irakaskuntza publikoarentzako akordio baten aldeko negoziazioetan administrazioak erakutsitako jarrerarengatik protesta egiteko.

Negoziazioak hasi zirenetik zazpi (7) hilabete iragan direnean eta ikusita Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko negoziatzaileek negoziatzeko eta adostasuna bilatzeko gaitasunik ez dutela, eta kontuan hartuta Nafarroako irakaskuntza publikoa hobetzeko akordio bat izateko premia handia daukagula, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ahal den bezain azkar Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusi Fermín Villanueva jauna ordeztu dezan, hezkuntzako mahai sektorialean Hezkuntza Departamentuaren negoziazio taldeko kidea, sindikatu guztiekin akordioa bilatzeko erakutsi duen eraginkortasun faltarengatik.

2. Hezkuntza kontseilariak berak har dezan hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazio prozesuaren ardura.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Altsasu eta Urdiainen Zangitu industrialdea abian jartzeko atzerapenari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Altsasu eta Urdiainen Zangitu industrialdea abian jartzeko atzerapenari buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Industria eta Lan kontseilari Armen-dariz jaunak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Osoko Bilkuran:

Gaia: Altsasu eta Urdiaingo industrialdea.

Galdera:

Zergatik atzeratu da Altsasu eta Urdiaingo udal-tako Zangitu industrialdeko lurzorua urbanizazioa abian jartzea eta jendearen eskura jartzea? Zer ondorio ditu atzerapen horrek eskualdeko enpresen alde egitean eta jarduera berriak ez jartzean.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

## **Galdera, jakiteko ea noren ardura den hezkuntzako mahai sektorialean inolako akordiorik lortu ez izana.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, jakiteko ea noren ardura den hezkuntzako mahai sektorialean inolako akordiorik lortu ez izana. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak ahoz erantzun diezaion.

2006ko apirilaren 28an, Hezkuntza Departamentuaren menpeko irakasleen batzordeko sindikatuek –AFAPNA, CCOO, CSI-CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT– erabaki zuten negoziazio mahaia uztea administrazioak irakaskuntza publikoarentzako akordio baten aldeko negoziatioetan administrazioak erakutsitako jarrerarengatik pro-

testa egiteko. Negoziazioak hasi zirenetik zazpi hilabete iragan direnean eta ikusita Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko negoziatzaileek negoziatzeko eta adostasuna bilatzeko gaitasunik ez dutela, eta kontuan hartuta Nafarroako irakaskuntza publikoa hobetzeko akordio bat izateko premia handia daukagula, parlamentu-talde honek ondoko galderari erantzutea nahi du:

Nor da hezkuntzako mahai sektorialean oraindik ere inongo akordiorik lortu ez izanaren erantzulea? Zergatik diote sindikatu guztiek hezkuntza administrazioak ez duela negoziazio mahai horretan negoziatzeko inongo borondaterik?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko eledun Catalán jaunak UGTko idazkari nagusi Cabrero jaunari buruz egindako adierazpeni buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.<sup>a</sup> TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gobernuko eledun Catalán jaunak UGTko idazkari nagusi Cabrero jaunari buruz egindako adierazpeni buruz foru parlamentari Félix M.<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Felix Taberna Monzonek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko ele-

dun Catalán jaunak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuko eledun Alberto Catalán jaunak, Gobernu Kontseiluaren ondoren komunikabideen aurrean eginiko agerraldian, UGTko idazkari nagusi Juan Antonio Cabrerori leporatu zion "arrabioaren politika" egitea: "Ibaia zeharkatzen lagundu zaio, eta ibaiaren erdian dagoela, zizt!, eztena sartzen dizu".

Ezin uler daitezke Gobernuko eledunak Nafarroako lehen sindikatuaren ordezkariari buruz ari zela erabili dituen tonua eta konparazioak. Era-kundeen arteko errespetua jokabidearen oinarriko araua izan behar du. Hori dela eta, honako galdera hau egiten dugu:

Adierazpen horiek berresten dituzu?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

## **Galdera, NA-411 errepedea –A15-Ostiz izenekoa– hobetzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, NA-411 errepedea –A15-Ostiz izenekoa– hobetzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzuteko.

2002-2009 urteetarako Nafarroako errepedeei buruzko II. plan zuzendariaren barruan, Nafarroako Gobernuak aurreikusia dauka NA-411 errepedea hobetzea, A15-Ostiz izenekoa (A-15ean hasi eta Ostizteraino, N-121-A errepedean).

Parlamentari honek honakoa ezagutu nahi du errepede horri buruz:

1. Aurreikusitakoaren arabera, noiz hasi eta noiz bukatuko dira obrak?

2. Aurrekontuko zein kontusailen kargura egingen dira obrak?

3. Zein izan dira bide horretako istripu-indizeak azken urteetan?

4. Zenbateko trafikoa dago? Zenbatekoa da kamioien trafikoa?

Iruñean, 2006ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Osasun Departamentuak San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoarentzat etorkizunari begira dituen planei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasun Departamentuak San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoarentzat etorkizunari begira dituen planei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak egiten ditu, berriz ere, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Aurtengo martxoaren 10ean, honako galdera hauek egin nizkion Osasun kontseilariari:

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren zuzendaritzak Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari eta Osasun Departamentuko kontseilariari "jarduera berrirako proposamenak" izeneko proiektua aurkeztu zien. Honela laburbiltzen zuten:

– Adimen gaixoentzako egoitza lagundu bat.

– Lanerako prestatzeko unitate bat.

– Tutoretza bidezko unitate bat.

Bestalde, zentro horretako ordezkari sindikalek publikoki kritikatu dira hartutako konpromisoak ez betetzearekin.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zein da Osasun Departamentuak zentro psikogeriatrikoarako daukan proposamena eta zein da

haren etorkizuna? Plangintzari eta aurreikuspenei buruzko informazio zehatza eskatzen dugu.

2. Zer konpromiso hartu ditu Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Xabierkoa zentroarekin? Honakoak eskatzen ditugu:

– Konpromiso horien betetzeari buruzko azalpen zehaztua eta arrazoitua.

– Konpromiso horien ez-betetzeari buruzko azalpen zehaztua eta arrazoitua.

Kontuan hartuta kontseilariak apirilaren 19an emaniko erantzunean ez zaiola erantzuten arestian aipaturiko galderetatik bakarrari ere, haiek berriz aurkeztu beharrean gertatu gara.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## Galdera, hezur-dentsitometriari buruzkoa.

### FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, hezur-dentsitometriari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### GALDERARENTESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Hezur-dentsitometria teknika egokia da hezur-masa neurtzeko. Osteoporosiaren ondorioz, hezur-masa eraldatu egiten da.

Menopausiaren aldian, emakumeak osteoporosia izateko arriskua izaten du; hori dela eta, prebentziorako tratamenduak nabarmentzeaz gain, espezialistek aipaturiko teknika, hezur-dentsitometria alegia, egitea eskatzen dute batzuetan.

Kontuan hartuta ikuskapen mota horren eskaera gero eta handiagoa dela eta medikuek gero eta gehiago eskatzen dutela, ulertezina da gaur egun

osasun sistema publikoak teknika hori ez eskaintzea eta gaixoak Klinika Unibertsitariora bideratu behar izatea.

Osasun kontseilariak emaniko datuen arabera, azken bost urte hauetan proba hauek gero eta gehiago egiten dira –954 hezur-dentsitometria 2000n, 54.340 euroko kostuarekin, eta 1.425 proba 2005ean, 127.853 euroko kostuarekin–.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

– Kontuan hartuta Nafarroako Klinika Unibertsitarioan egiten diren hezur-dentsitometriaren kopuruak nabarmen gora egin duela, zergatik Osasunbideak ez dauka hezur-dentsitometria egiteko beharrezkoa den teknologiarik?

Osasun kontseilariak emaniko datuak ikusita, aztertu al da Osasunbideak teknologia hori edukitzea errentagarria den?

– Zenbateko kostua dute hezur-dentsitometriari egin ahal izateko beharrezkoak diren aparatuek?

– Osasunbideak beste osasun zentro batzuetara bideratzen al ditu gaixoak proba hori egin diezaieten? Hala baldin bada, zehaztu zein zentrotera bideratzen diren.

– Ba al da Nafarroan teknika hori erabiltzen duen beste osasun zentrorik?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, jakiteko Frantzia eta Iruña arteko bidearen diseinuan txirrindulariak aintzat hartu ote diren.**

*FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok jaunak egindako galdera, jakiteko Frantzia eta Iruña arteko bidearen diseinuan txirrindulariak aintzat hartu ote diren. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari, idatziz erantzun diezaion.

Administrazio publikoek, beste entitate publiko eta pribatu askorekin batera, motordun ibilgailuen erabilera zentzuzkoagoa izan dadin bultzatu izan dute aspaldi honetan, eta beste neurri batzuen artean, hiriko ibilbideetan kutsatzen ez duten ibilgailuez baliatzea, adibidez bizikletaz. Bestalde, kirola egitea ere sustatzen da, txirrindularitza barne, eta txirrindulariak bide publikoetan ibiltzen ohi dira. Horrekin guztiarekin ere, bideen ardura duten agintariengandik, etengabe, asmo onak entzuten ditugun arren, Nafarroako eta bereziki Iruñerriko komunikabideen diseinua eta eraikuntza, azken hamarkadetan, motordun ibilgailuei begira baizik ez da egin, bizikletaren erabiltzaileak sistematikoki ahaztuz. Iruñeko eta Iruñerriko sarbideen sarea autobideen edo autobien ezaugarriekin eratzen joan da eta, pixkanaka, bizikleta hirian ibiltzeko erabiltzea eta, kirol gisa, txirrindularitzan aritzea hiriburuaren inguruetan gero eta arrisku-tsuago bilakatu dira, ez aholkatzeko modukoak izateraino. Horri dagokionez, zirkulazio erregelamenduaren aldaketa, zeinak aukera eman baitzuen bizikletarekin ibiltzeko autobideetako bazterbideetatik, egokia izan zen txirrindulariak bide-sarean aterabiderik gabe ez geratzeko behin baino gehiagotan, baina ez du berekin ekarri, inolaz ere, autobideak bizikletak ibiltzeko leku egokia izatea.

Batzuetan, autobideak eraikitzeak eragin positiboak izan litzake txirrindularitzarako, ohiko errepedetan motordun ibilgailuen trafikoa txikiagoa izanen delako. Horixe da Iruña eta Lizarra arteko A-12 autobidea irekitzean gertatutakoa, txirrindulariek erosotasun handiagoz erabiltzen baitute orain NA-1100 errepedea (antzinako N-111 errepedea). Lastima da modurik ez egotea Iruñetik NA-1100 errepedera iristeko, ez bada A-12 autobideko lehen kilometroak eginez, Azteraineraino, horrek berekin dakarren arriskuarekin, edo Paternaindik buelta handi bat eginez, hain zuzen autobide hori saihesteko. Are argiago dago bideak diseinatu eta eraikitzekeo ardura dutenek txirrindulariak ahaztu egiten dituztela, Iruña eta Esa arteko A-21 autobidearen eraikuntzan ikus daitekeen bezala. Batetik, antzinako N-240 errepedeari, dirudenez, autobidearen zerbitzu-bide gisa eutsiko zaio, eta horrek aukera emanen du txirrindulariek hura erabiltzeko, orain arte ez bezala, zeren eta bide horretan automobilen trafikoa handia izan baita. Arazoa da Iruñeko A-21 autobiderako irteeren diseinuarengatik, duela urte batzuetatik, guztiz ezinezkoa dela txirrindularientzat N-240 errepedera iristea, une batean edo bestean autobide batetik ibili gabe –A-21 autobidea, A-15 edo PA-30a–. Praktikan, Noaingo korapiloa erabat erabilezina da txirrindularientzat.

Komunikabideak diseinatzen dituztenek noizean behin gogoratuko balute bizikletak eta txirrindulariak badaudela, neurri batzuk ezarri ahalko litzukete, autobide edo autopista berriak eraikitzekeo beharrezkoak ohi diren inbertsioen aldean kostu hagitx txikia izanen luketenak: bide gorriak egin, txirrindularientzat erreserbaturiko sarbideak, herri bideak asfaltatu aukerako sarbideak izan daitezkeen bizikleta erabiltzen dutenentzat, txirrindularientzako aukerako bideak seinatu eta abar.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak iragarria du Nafarroa eta Frantzia Luzaide aldetik lotzeko komunikabide berri bat egiten duela; bide hori bat etorriko litzateke, zati batean, N-135 errepedearen egungo trazadurarekin. Errepide horretatik txirrindulari ugari ibiltzen da gaur egun, zeren eta hartara iristeko bideen aldetik, trazaduraren aldetik eta ibilgailuen trafikoaren aldetik bereziki egokia baita txirrindularitzarako. Bestalde, aukera ematen du era askotako ibilbideak egiteko Nafarroako leku ezberdinetatik: Kintoa, Baztan, NA-164 errepedearen bitartez, Erroibar, Orreaga eta abar. Garrantzia handikoa da, halaber, N-135

errepidearen trazadura bat datorrela, zati batean, Santiago Bidearekin; hori dela eta, bizikletan doazen erromes ugari ibiltzen da handik. Bide berriaren eraikuntzari buruz egin diren iragarpenetan adierazi da hiru lerroko errepidea izanen dela, baina etorkizunean, agian, lau lerroko autobide bihur daitekeela; horrenbestez, parlamentari honi kezka bat sortu zaio: ea behingoagatik herrilanetako arduradunek kontuan hartu duten txirindulariak ere badaudela, edo, beste batzuetan gertatu den bezala, urte gutxiren buruan ia ezinezkoa izanen den N-135 errepidera eta hari loturiko beste bide batzuetara behar bezala iristea.

Hori dela eta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak ondoko galderei erantzutea nahi dugu:

Iruña eta Frantzia arteko bide berriaren diseinuan, kontuan hartuko al da bizikletak badaudela, eremu horretara iritsi daitezzen ez galarazteko?

Neurriren bat hartuko al da Luzaide eta Iruña artean eta inguruko lekuetan bizikletan segurtasunez ibiltzeak bideragarria izaten jarrai dezan? Neurriren bat hartu behar al da Iruñetik ibilbide horretara iritsi ahal izateko nahitaez autobidieren batetik joan behar izan gabe?

Aurreikuspenen bat ba al dago N-240 errepiderako sarbideren bat egoteko bizikletentzat, hura A-21 autobideko zerbitzu-bide bihurtzen denerako, egungo errepide handietatik kanpo?

Oro har, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak neurriren bat edo aurreikuspenen bat ba ote du komunikabideetan bizikletak ere badaudela aintzat hartzeko bide horiek eraiki edo erreformatzeko proiektuei ekiteko garaian?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

## **Galdera, “Esne beltzaren” inportazioari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andrearen egindako galdera, “Esne beltzaren” inportazioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Miren Egaña Descargak, Aralar parlamentu-taldeko kideak, Ganbera honen Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz, ondoko galderak egiten ditu Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilari jaunak idatziz erantzun diezazkion.

“Esne beltza” deitutakoaren inportazioari buruz egunkarietan agertu diren informazioak direla eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Ba al du departamentuak informaziorik Europar Batasuneko herrialdeetan sobran den esnea Nafarroan sartu izanari buruz 2005ean eta 2006an? Zenbat esne sartu da?

2.- Egia al da UAGNk eginiko salaketa, alegia, esne-industria batzuek beste lantegi batzuetan ari direla banatzen inportatutako esnea?

3.- Nolako kontrola egiten du departamentuak Nafarroan gai honetan lan egiten duten enpresa eta zentralen gainean? Ikuskapenik egiten al da? Zenbat zehapen espediente zabaldu dira gai hauek direla-eta 2005ean eta 2006an?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

## **Galdera, jakiteko Kultura Departamentuak Tuteran agertu diren aztarna arkeologikoak kontserbatzeko asmorik ote duen.**

*FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, jakiteko Kultura Departamentuak Tuteran agertu diren aztarna arkeologikoak kontserbatzeko asmorik ote duen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Berriki, Tuterako Herrerías kalean, bertan egiten ari diren obretan, XII. mendekoa izan daitekeen defentsa-dorre bat agertu da.

Diametroan sei metro dituen defentsa-dorre zirkularra, zeinaren lau metroko garaiera duen zati bat azaleratu baita, harresiaren defentsarako aurre horma bat da, obra horretako indusketen ardua hartu duen arkeologoaren arabera.

Arkeologoaren apustua da, aurkitutakoaren garrantzia dela eta, hura kontserbatzea. Nafarroako sozialistok aztarna arkeologikoak kontserbatu beharra defenditu izan dugu beti. Gure iraganaren zati bat direlako eta, gainera, gure historia hobeki ezagutzen laguntzen digutelako.

Kultura Departamentuak arlo honetan berriki erakutsi duen jokabidea dela eta, ez dugu segurantzarik departamentuak Tuteran agertutako aztarna arkeologikoak kontserbatzeko izan dezakeen borondateaz; hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Pentsatua al du Kultura Departamentuak Tuteran berriki agerturiko aztarna arkeologikoak kontserbatu eta berreskuratzea herritarrek eta bisitariak haietaz goza dezaten?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

## **Galdera, “Erresuma baten aroa” erakusketan ikusgai egon diren zenbait pieza Lizarran jarriko bide den erakusketa iraunkor batera eramateari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, “Erresuma baten aroa” erakusketan ikusgai egon diren zenbait pieza Lizarran jarriko bide den erakusketa iraunkor batera eramateari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Komunikabideen bitartez jakin dugu Nafarroako Gobernuak asmoa duela Lizarrako eliza batean erakusketa iraunkor gisa uzteko “Erresuma baten Aroa” erakusketan, Baluartean, hiru hilabetez-edo, ikusgai egon diren pieza eta ikus-entzunezkoetako batzuk.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Baluartean erakutsitako piezetatik zein eraman nahi ditu Nafarroako Gobernuak Lizarrako eliza batera, bertan jarri nahi den erakusketa iraunkorrerako?

- Zenbat diru erabili nahi du Nafarroako Gobernuak proiektu berri hori finantzatzeko?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

## **Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan Kawaguchiko abesbatzak eman beharreko kontzertua egiteko tokia aldatzeko arrazoiari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan Kawaguchiko abesbatzak eman beharreko kontzertua egiteko tokia aldatzeko arrazoiari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Orain dela gutxi Kawaguchiko abesbatza japoniarra bisitan egon da Nafarroan, Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestrak Kawaguchira eta Yamaguchira eginiko bisitaren ondoren.

Erriberriko Frantziskotarren elizan eman zuen kontzertua Japoniako abesbatzak Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestrarekin batera. Kontzertu hori Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan sartzen da.

Aurreikusitakoaren arabera, kontzertua Frantzisko Jatsukoaren auditorioan, Xabierren, egin behar zen, apirilaren 28an, baina Erriberriko Frantziskotarren komentuan egin zen.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Zer arrazoi izan dituzte Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetaren jaiotzaren V. mendeurreneko ospakizunen antolatzaileek Xabierko auditorioan egitekoa zen kontzertua Erriberriko Frantziskotarren komentura eramateko?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia



## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren enkarguz Víctor Manuel Arbeloaren liburu bat argitaratzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren enkarguz Víctor Manuel Arbeloaren liburu bat argitaratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo

Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

- Madrilgo zein argitaletzek argitaratu du Víctor Manuel Arbeloaren liburu bat, Nafarroako Gobernuaren enkarguz?

- Zenbat diru gastatu du Nafarroako Gobernuak Víctor Manuel Arbeloaren liburu horren argitalpenean?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

## **Galdera, Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI JESÚS PARDO GURPEGUI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui jaunak egindako galdera, Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Jesús Pardo Gurpegui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Trabajos Catastrales, S.A. enpresa publikoari buruzko galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Zein enpresa edo entitatetan hartzen du parte Trabajos Catastrales S.A. enpresa publikoak?

- Zein da parte hartutako enpresa bakoitzaren guztizko kapital sozialaren gainean Trabajos Catastrales S.A.k daukan parte-hartzearen ehunekoa? Zein da partaidetza horien hasierako eta egungo balorazioa?

- Trabajos Catastrales S.A.rekin batera zein beste enpresa, entitate edo pertsona dira bazkideak edo parte hartzen dute Trabajos Catastrales S.A.k parte hartzen duen enpresetako bakoitzean?

- Zein ordezkari du eta zeinek ordezkatzeko parte hartutako entitateetako administrazio-, kudeaketa- eta kontrol-organoetan.

- Zein dira parte hartutako enpresen jarduerak, helburu soziala eta helbide soziala?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Jesús Pardo Gurpegui

## **Galdera, jakiteko oinarrizko osasun laguntzako farmazialarien lanpostuei buruz 2001ean onetsi zen mozioan premiatutakoa bete ote den.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, jakiteko oinarrizko osasun laguntzako farmazialarien lanpostuei buruz 2001ean onetsi zen mozioan premiatutakoa bete ote den. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Argi dago oinarrizko osasun laguntzako egituretan farmazialari profesionalak eduki behar direla, besteak beste, medikamentuak behar direnean segurtasunez erabil daitezen sustatzeko; hartara jasota dago Farmazia laguntzari buruzko 12/2000

Foru Legeko 41.5 artikuluan, hauxe esaten baitu: "Osasun barruti bakoitzak, bere oinarrizko laguntzako egituretan farmazia laguntza eman dadin, gutxienez ere farmazialari bat edukiko du 40.000 biztanleko eta bigarren farmazialari bat 25.000 biztanleko zati bakoitzeko."

2001eko martxoan, aho batez onetsi zen talde sozialistaren mozio bat, non Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen oinarrizko osasun laguntza emateko behar adina farmazialari lanpostu sartzeko plantilla organikoan eta haiek 2001eko lan eskaintza publikoan biltzeko.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Bete al da aho batez onetsitako mozio hori? Hala bada, zenbat lanpostu eskaini ziren, zenbat farmazialari jarri dira lanean eta zein osasun arlotan ari dira lanean?

2.- Ezezkoan, zer egiteko asmoa du Osasun kontseilariak Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru legeko 41.5 artikulua betetzeko eta, hartara, legean ezarritako farmazialari kopurua edukitzeko?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait obra publikotan jarritako eskulturei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait obra publikotan jarritako eskulturei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Foru Komunitatean eginiko zenbait obra publikotan, eskulturak jarri dira. Horiei buruzko honako informazioa eskatzen dugu:

– Zein departamentuk adjudikatu ditu lan horiek?

- Adjudikatzeko zein sistema hautatu da? Adjudikazio bakoitzaren baldintzen orriak eta horietako bakoitzaren justifikazioa. Izangaiak banan-banan zehaztea nahi dugu, bat baino gehiago zegoen kasuetan.

- Zein izan da lan horietako bakoitzaren kostua?

- Zein izan dira adjudikazio-hartzaileak? Zergatik?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefona* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

|                                                                                 |                                                                                                                                                             |
|---------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b><br><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> | <b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b><br><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b><br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Navas de Tolosa, 1<br>31002 IRUÑA |
| Urtebete ..... 43,95 euro                                                       |                                                                                                                                                             |
| Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,15 »                               |                                                                                                                                                             |
| Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,30 »                                |                                                                                                                                                             |